



## **BALENCIAGA, gertuago**

*Cristobal Balenciaga Museorako bisita*

*Bilbo-Getaria-Bilbo*

Cristobal Balenciaga Museoak Getarian, Balenciagaren jaioterrian, ongietorria egingo dizu. Bertan, moda-sortzailearen sorkari bikainak ezagutzeko, museoko aldi baterako erakusketez gozatzeko edo familiarekin batera tailer-bisita ludiko batean parte hartzeko aukera izango duzu. Bilbotik Getariarako distantzia eroso egingo duzu, autobusez, eta historiaren eta gastronomiaren ikuspegitik ospetsua den kokaleku honetako ondare aberatsa ezagutuko duzu.

- **Iraupena:** 10:00etatik 14:15era edo 10.00etatik 17.15etara.
- **Azaroko igandeetan:** 8, 15, 22 eta 29.
- **Hizkuntzak:** Euskara, gaztelania, ingelesa eta frantsesa.
- **Irteera eta helmuga:** Jesusen Bihotzaren plaza 1. Autobus geltokia.

### EGITARAUA

10:00-10:45 – Bilbotik Getariarako bidaia, autobusez.

2 aukera:

11:00-13:00 – Bisita-tailerra, familientzat  
(helduak 6-12 urteko umeekin)

-----  
11:00-12:30 Bisita gidatua eta denbora librea, museoan  
12:30-13.00 Getariako alde zaharrean bisita iruzkindua

13:30-14:15 – Itzulerako bidaia, Getaria-Bilbo.  
(azaroaren 8a eta 22a)

16:30-17:15 – Itzulerako bidaia, Getaria-Bilbo.  
(azaroaren 15a eta 29a)

Gidari batek lagunduko du taldea zerbitzu osoan, eta azalpenak 4 hizkuntzatan emango ditu. Bi bisita ereduak Getarian denbora librea barne hartzen dute. Azaroaren 15ean eta 29an, ohiko itzulera ordua 13.30etatik 16:30etara atzeratuko da, parte-hartzaileek haien Getariako aisia-denbora luzatu eta bere gastronomia ezagunaz gozatu dezaten, hala nahi izanez gero.

# B CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

Ordutegiak orientagarriak dira. Egitarauan proposatutako ordutegien barruan, edukien ordena aldatu daiteke.

## GOMENDIOAK

- Autobusean ezin da ez janaririk ez edaririk eraman eta kontsumitu.
- Adingabeko guztiek arduradun batek lagunduta joan beharko dute.

## ZERBITZUAREN EZAUGARRIAK

Jasotzeko tokia:

Zerbitzuaren abiapuntua eta helmuga Jesusen Bihotzaren plazako 1.ean kokatuta dago, beheko planoan adierazitako tokian.

Helbidea: Jesusen Bihotzaren plaza 1.

GPS datuak: 43.26534-2.944711.



## BISITAK

Museoaz gozatzeko bi modu: familientzako tailer-bisita edo bisita iruzkindua.

### **Bisita-Tailerra:**

Familientzako bisita-tailerraren helburua sei eta hamabi urte bitarteko haurrak dituzten familiei Cristóbal Balenciaga Museoko bilduma modu ludikoan eta kreatiboan eskaintzea da. Parte-hartzaileek ikusgai dauden jantzi batzuk ezagutzeko eta aztertzeko aukera edukiko dute eta, era berean, beraien sormena landuko dute, jarduera praktiko baten bidez.

Neska-mutilek, helduen laguntzaz, jantzi propio bat diseinatu eta sortu ahal izango dute. Zehazki, kapa bat; Balenciaga moda-sortzaileari gehien gustatzen zitzaion jantzia, hain zuzen.





# B CRISTÓBAL **BALENCIAGA** MUSEOA

## Bisita iruzkinduak:

Gidari aditu baten eskutik, bisita iruzkinduan, museoko bilduma egonkorrean sakonduko da eta «Balenciaga. Luxuaren esperientzia» izeneko aldi baterako erakusketa bisitatuko da.

Museoko beste eduki batzuk libreki bisitatu ahal izango dira, adibidez: modako argazkilaritzaren historia jorratzen duen «About Fashion» erakusketa.

Museoa bisitatu ondoren, parte-hartzaileek Getariako alde zaharreko kaleak bisitatuko dituzte, ondare arkitektoniko aberatsa deskubritzeko, bisita iruzkindu baten bidez. Bisita horretan, parte-hartzaileek Cristóbal Balenciaga bere jaioterriko historiaren testuinguruan kokatu ahal izango dute.

Bi bisitetan, Getarian egoteko denbora libre izango da.





ERRESERBAK, ORDAINTZEKO MODUA, BALIOGABETZEA ETA BERTAN BEHERA UZTEA

Erreserbak: Aurretik erreserbatzea eta ordaintzea ezinbestekoa da.

- Erreserbak **943 00 88 40** telefonora deituz edo **info@crislobalbalenciagamuseoa.com** helbidera idatziz egin behar dira. Cristóbal Balenciaga Museoak mezu elektronikoko bat bidaliko du, aurre-erreserbarekin eta informazio-agiriarekin batera.
- Erreserbatzeko, honako datu hauek eman beharko dira:
  - Bisitaren data.
  - Zenbat toki erreserbatu nahi diren eta zer bisita mota egin nahi den (tailer-bisita edo bisita iruzkindua)
  - Aplikatu beharreko tarifa.
  - Azalpenak zein hizkuntzatan jaso nahi diren (euskara, gaztelania, frantsesa, ingelesa)
  - Harremanetarako telefono bat.
  - Helbide elektronikoko bat.
  - Kontuan hartu beharreko alderdiak: (mugikortasun mugatua, eta abar)
- Antolatzaileek parte-hartzaile kopurua aldatzeko aukera izango dute. Zerbitzua egiteko gutxieneko pertsona kopurua 20koa da.
- Erreserba ez da osatuko aurretiko ordainketa egin arte. Banku-transferentzia bidez egin behar da, 2095 0611 01 1064089690 kontura.
- Erreserbak egiteko epea, bai telefonoz bai posta elektronikoz, irteera bakoitzaren aurreko ostegunean bukatuko da, 15:00etan. Ordaintzeko epea aurreko ostiralean bukatuko da, 15:00etan. Ordainketa finkatutako epean egiten ez bada, erreserbak baliogabetutzat joko dira.
- Izena ematen duten pertsonak gidariarekin harremanetan jarri ahal izango dute, 688 682 011 telefonoaren bidez. Zenbaki hori bisitaren eguneko goizeko 9:30etik egongo da martxan. Erabiltzaileen zalantzei eta argibide-eskaerei erantzuteko erabiliko da telefonoa. Telefono zenbaki hori zerbitzua bukatu bezain laster desaktibatuko da. Zenbakia zerbitzuz kanpo dagoen bitartean, bezeroek Cristóbal Balenciaga Museoarekin harremanetan jartzeko aukera izango dute,

edozein informazio edo argibide eskatzeko, aurretik adierazitako telefonoaren eta posta elektronikoaren bitartez.

- Izena ematen duten pertsonak garaiz iritsi beharko dute adierazitako tokira. Topaketaren lekura garaiz iristen ez badira, bisitan parte hartzeko eskubidea gal dezakete.

## Tarifak:

Tarifa	BEZa barne
Tarifa indibidual orokorra:	20,00 €
Tarifa murriztua*:	15,00 €
*18 urtetik beherakoak, 65 urtetik gorakoak, ikasleak eta langabetuak.	
1. Familia-tarifa: (2 heldu + gehienez ere 2 adingabe)	45,00 €
2. Familia-tarifa: (Heldu 1 + gehienez ere 2 adingabe)	35,00 €
** Familia-tarifen mugak gainditzen dituzten familietako kideei tarifa murriztua aplikatuko zaie.	

## Ordaintzeko modua:

- **Aurretiko ordainketa.**
- Ez da onartuko bisitaren ondoren ordaintzea. Ordainketa behar bezala egiten ez bada, bisitan parte hartzeko eskubidea gal daiteke.
- Ez dira ez txekeak ez bestelako ordainketa-moduak onartuko.
- Edozein arrazoi dela medio, bidaia bertan behera utziko balitz, Cristóbal Balenciaga Museoak erreserbari dagozkion zenbatekoak itzuliko ditu, banku-transferentzia bidez.

## Baliogabetzea:

- Izena ematen duten pertsonak beren erreserbak baliogabetzeko aukera izango dute. Horretarako, Cristóbal Balenciaga Museoarekin harremanetan jarri beharko dute, **943 00 88 40** telefonora deituz edo **info@crislobalbalenciagamuseoa.com** helbidera idatziz.



- Mesedez, ahalik eta lasterren eman bisita baliogabetzeko asmoaren berri, itxaron-zerrendan dauden pertsoneri garaiz abisatu eta toki libreak behar adina denborarekin bete ahal izateko.

**Bertan behera uztea:**

Zerbitzua bertan behera utzi ahal izango da, gutxieneko parte-hartzaile kopurua osatzen ez bada. Behar bezala formalizatutako 20 aurre-erreserba behar dira, gutxienez. Irteera bakoitzaren aurreko ostiralean, 15:00etan, gutxieneko kopurua osatu ez bada, erreserba egin duten pertsoneri bertan behera utziko dela jakinaraziko zaie eta jasotako zenbatekoak itzuliko zaizkie.